

# Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak

Gotzon Aurrekoetxea Olabarri  
EHUko irakaslea

Dialektologiako lanetan ahozko testu luzeak transkribatu behar direnean alfabeto ortografikoan idatzi ohi dira. Dokumentu hauek irakurleria zabalarentzat izan ordez testu jasoetan agertu behar direnean eta zehaztasun handiz papereratu behar direnean joera desberdinak agertu dira orain arteko argitalpenetan. Artikulu honetan ikerketa-lanetan testuen transkribatzean jarraitu beharreko oinarritzko arauak proposatzen dira, entzuten den hura idazteko orduan izaten diren zalantzetan irtenbideak proposatuz.

In dialectology, long oral texts are transcribed in orthographical alphabet. When these kind of documents are not directed to a general group of lecters but to written works, with a high level of detail, tendencies are divers. In this article we propose basic rules in transcribing texts in investigation, and also solutions for doubts which may appear in witting what it is listen.

Dialektologian lanbidez egunero ari garenok edo ikerketaren bat egitera hurbiltzen den edonor sarri aurkitzen da entzuten duen testua edo hitza nola papereratu behar duen ezin asmatu<sup>1</sup>.

Arazoa, jakina, ez da testua irakur-leria zabalarentzat idatzi behar denean gordin agertzen, horrelakoetan zehaztasun asko eta asko alboratu egin behar delako. Baina testu hori dialektologia edo hizkuntzalaritzako aldizkari edo liburu berezitu batean argitaratu behar denean, transkripzio profesio-nala egin behar denean, behin baino gehiagotan izaten dira zalantzak soinu hau edo hori transkribatzeko unean.

Ondoko lerrootan horrelako kasuetan gertatzen diren arazoen bilduma eta gainditzeko proposamenak agertuko dira.

## 1. Alfabeto fonetikoa

Dialektologian biltzen diren datuak zehaztasun handiarekin jaso behar direnean alfabeto fonetikoa erabiltzen da. Datuen ordeztu luzeak direnean ezinezko bihurtzen da, ostera, alfabeto fonetikoa erabiltzea eta idazkera ortografikoz<sup>2</sup> idazten ahalegintzen gara.

Alfabeto fonetikoa erabili behar denean euskararen eremuan disziplina honetan dihardugunok ez dugu alfabeto bat bakarria erabiltzen. Joera bat baino gehiago agertzen da argitalpe-netan zehar.

Honek, berez zaila gertatzen den irakurketa erraztu beharrean zailagotu egiten du. Oso jende gutxi dago ohitua, izan ere, alfabeto fonetikoan dau-

den datuak irakurtzen. Arlo estua da honako hau. Gutxi erabiltzen duena.

Izan du arrakasta alfabeto filologi-koan oinarriturik euskararen beharretara egokitu zen alfabeto fonetikoak gure artean. Mitxelenak lehenik, Txillardegik gero eta ostean beste askok erabili izan dugu noiz edo behin.

Oraintsuago, alabaina, nazioarteko alfabeto fonetiko (IPA) ere erabiltzen hasiak dira beste ikertzaile batzuk.

Euskaltzaindiak kudeatzen duen "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa-EHHA" egitasmoak, halaber, IPAn oinarritutako alfabeto fonetiko egokitua darabil bere beharretarako. Gainera, laster hasiko omen dira jasotako datuak eta testuak argitaratzen. Honenbestez, alfabeto hau erabiltzen ohitu egin beharko dugu datuak erraztasun batez irakurri gura baditugu.

Bat ala beste, sasoi delat deritzot zientziaren arlo honetan gabiltzan guztion artean hauetako alfabeto bat hautatu eta denok bera erabiltzen hasteko. Baina utz dezagun oraingoz arazo hau, gaurko gaia ez da eta.

## 2. Alfabeto ortografikoan idatzitako testuak

Alfabeto fonetikoak arazoak sortzen baditu ere, ezagutzaren mailan jarri behar dira arazook. Baina testuak alfabeto ortografikoan idatzi behar direnean arazoa handiagoa da; ez da ezagutzaren mailan kokatzen. Zalantza eta arazoa delako hots edo soinu batentzat egokia den grafema aukeratzeari datza.

1. Eskerrak X. Videgain eta I. Camino lankideei originala irakurri eta egin dizkidaten oharrengatik.

2. *Idazkera ortografiko* berba Euskaltzaindiak euskararentzat onartu duen alfabetoa erabiliz burutzen dena izendatzeko erabiliko da.

Testuok irakurleria zabalarentzat direnean erabakiak errazak izaten direla ere esan daiteke; baina helburua lekukoan ebakera ahal den zehaztasun handienaz transkribatzea denean sortzen dira benetako arazoak. Hala-koetan zehaztasuna lanaren kalitatearen adierazle bihurtzen da, eta zaindu beharrekoa.

Gauzak larriagotu egiten dira herri bateko hizkera jaso ordez lan berean herri desberdinetako edo eremu desberdinetako hizkerak jaso behar direnean. Sistema fonologiko desberdinak dituzten hizkeretako testuak jaso behar direnean, alegia.

Honen aurrean jarraitu beharko liratekeen irizpideak aztertzen ditut, disziplina honetan dihardugunon artean eztabaida zabala planteatu eta gauzak adostasunez egin ditzagun. Hau guztia, jakinik erabiltzen den aukera erabilia ere konbentziora dela, erabiltzaileok adostutako sistema dela.

## 2.1. Irizpide orokorrak

2.1.1. Transkribatzean ahal denik eta zehaztasun handiena gorde behar da.

2.1.2. Ahal denik eta irakurgarrien ipini behar dira testuak. Zehaztasun eta irakurgarritasunaren arteko dialektika dugu aurrean.

2.1.3. Berbak bereiztuta idatziko dira. Aditz perifrastikoetan nagusia eta laguntzailea bereiz: *ixite san (izaten zan), isi lei, etorri ok, gau bet.*

2.1.4. Beti grafia ortografikoa erabiliko da. Ez da grafema berezirik erabiliko. Edozein letra-tipok dituen grafemak bakarrik erabiliko dira.

2.1.5. Diptongoak ez dira markatuko edo adieraziko; ez goranzkoak, ez beheranzkoak, ezta esporadikoak ([*oe*] eta horrelakoak) ere: *aita; gauē, guasen; maitia.*

2.1.6. Sudurtzapenak ez dira markatuko, Ekialdeko testuetan izan ezik: *mehē.*

2.1.7. Azentuak markatu egingo dira, ahal den neurrian (arazo bat baino gehiago aurkitzen da intentsitate-azentua edo tonala den zehaztean eta abar).

2.1.8. Erdarakadak euskal grafian emango dira, lekukoak konszienteki esaten ez dituen bitartean. Berdin maileruak: *eske, sikan, oseake (o sea ke?), por ejemplo, derrepente, enkanbio.*

Baina lekukoak konszienteki egiten duenean (" ") kakotx artean idatziko dira.

2.1.9. Soinu erlajatuak ez dira adieraziko: [*eśáten*] - *esáten.*

2.1.10. Soinu luzeak ez dira adieraziko; galdu egingo da ñabardura hau: [*á:rdi*] - *árdi.*

2.1.11. Zubererako /ü/ soinua gorde egingo da; dieresis eta guzti erabiliko da: [*düsü*] - *düzü.*

2.1.12. Lekukoaren geldiene edo isiluneak puntuen bidez adieraziko dira, nahi izanik.

2.1.13. Lekukoak esandako zeredozer ulertezin bada \$\$\$\$ zeinua jarriko da bere ordez.

2.1.14. Kakotxak (“ ”) lekukoak asmatu edo kreatu ez duen egitura bat ematen duenean, jadanik sozializatuta dagoen zerbait esaten duenean, erabiliko dira (errana, zitazioa, aipamena, kantua, atsoitza...).

2.1.15. Elkarrizketako mintzatzaille ezberdinen arteko mozketak. Hiztun bakoitzak lerro bat hasiko du, hasieran marra bat (-) jarriz. Horrela egingo da inkestagile eta lekuko edo pertsona gehiagoren arteko elkarrizketetan (marraren ostean hitzunaren laburdurak eta bi puntu ipiniz).

2.1.16. Gertakizun ez linguistikoren bat jazotzen denean “(.)” (puntua parentesi barruan) zeinuarekin adieraziko da (atearen kolpea, telefonoaren hotsa...), jaso gura bada.

2.1.17. Lekukoaren berbetan transkribatzaileak zerbait argigarri sartu gura duenean kortxete “[ ]” barruan ipiniko du.

2.1.18. Ahal denik eta diakritiko guxtien erabiltzea (azentuz kanpo) gomendatzen da.

## 2.2. Fonema eta soinuen transkripzioa

Nagusiki transkripzio fonologikoa hartuko da abiapuntu moduan. Ñabar-dura fonetikoak ondoko formetan transkribatuko dira:

2.2.1. Herskari ahostun igurzkarituetan igurzkarri izaera ez da gordeko: [β, δ, γ] - *b, d, g*.

2.2.2. Txistukari igurzkarri ahostunetan ahoskuntza ez da gordeko: [ž, z, ž] - *s, z, x*.

Orain arteko argitalpenetan modu desberdinez transkribatu da hirugarren soinua: *jaun, xaun, žaun; herrixa, herrija, herraža; xiten, žiten...*

Kasu honetan transkribaketa ahostun/ahoskabe oposizioa neutralizatuz egitea proposatzen da<sup>3</sup>, ahoskabe moduan eginuz.

2.2.3. Txistukari afrikatueta ahoskuntza ez da adieraziko: [dž, dz, dž] - *ds, dz, dx*.

2.2.4. [ŋ, ŋ̣, ŋ̥] alofonoetan *n* idatziko da.

2.2.5. [ɛ, œ; ɔ] alofonoak *e; o* transkribatuko dira.

2.2.6. /h/ fonemaren burutzapen guztiak *h* transkribatuko dira.

2.2.7. [R, r̄] bokalartekoak direnean *rr* transkribatuko dira; besteetan *r* bakunaz.

2.2.8. [j̣] - *y*.

2.2.9. [x] - *j*.

2.2.10. Kontsonante bustiak gorde egingo dira, ez dira desagertuko: [ɲ, ʎ, tt, dd, ʃ] - *ñ, ll, tt, dd, x*.

2.2.11. Herskari aspiratueta aspiraketa gorde egingo da: [ph, th, kh] - *ph, th, kh*.

3. Lehen bi zeinuekin arazorik ez bada ere, hirugarrenak arazo gehiago dakartza alde batetik eta bestetik onartzeko orduan, orain arte izan diren ohitura desberdinak direla eta.

## 2.3. Ebakera desberdinek sortzen dituzten arazoak

### 2.3.1. Lexema baten barruan edo "lexema + morfema" loturan gertatzen diren soinu galtzeak.

Soinu-galtze hauek mota desberdinetakoak izan daitezke: bokalen galera, kontsonante baten galera, kontsonante-multzo baten galera...

#### a) Bokal bat galtzea:

Orain arte argitaratu diren era hone-tako lanetan molde desberdinez jokatu da egile desberdinen artean eta sarri egile baten lan desberdinetan:

- Galdu den bokala parentesi barruan ipiniz: *ze(e)n*, *hú(a)k*, *besté(e)ki*, *de(i)tzen*, *da(o)*...
- Entzun den bezala transkribatuz: *kusi*, *torko*, *maten*, *mein* (< emain), *er* (< ere), *re*, *zra*, *erman*, *tenbra*, *oritzen* (< oroitzen)...
- Bi bokal berdin direnean azentu zirkunflejoaren (^) ikurra jarriz: *âzi* (< arazi), *ô* (oo < edo), *plazâ*...

Honen aurrean ondoko jokaera proposatzen da:

Esanahia argi dagoenean lekukoak ahoskatu moduan idatziko dira. Ez da emango galdu den hotsaren berri: *astók* (< astoak), *re*, *emoitra*, *saltra*, *bar* (< bear)...

Beste zerbaitekin erratzeko arrisku bizia denean eta testuinguruak ez duenean laguntzen, parentesi barruan ipiniko da galdutako bokala: *da(o)* (# da), *d(i)enian* (# denian), *ge(i)o* (# geo = gero)...

#### b) Kontsonante bat galtzea:

Orain arteko joera ondoko hau da egile desberdinak aztertu ostean:

#### - Hitz barruan:

- r- > Ø: bai lexeman, bai morfeman ager daiteke erorketa hau: *etxea* (< etxera), *atea*, *neoni*, *denboak*, *aitaen*, *o(r)din*, *hiu(r)etan*, *o(r)o*, *lotuik*, *ziela*, *ben* (< beren), *dene-i*, *Tolosaa*, *geo*, *nee*, *dotriña-a*, *ze-i*, *eaman*, *gea*, *dailtza*...
- g- > Ø: *zeok*, *ein*, *eun*, *iota*, *eon*, *dittuunak*...
- d- > Ø: *eerki*, *eerrak*...

#### - Hitz-amaieran: *zerbai*, *aitareki*, *kebenti*, *bos*, *izan ze*...

Hau ikusirik, ondokoa proposatzen da: kontsonante-galera ez adierazi inoiz ere; ez parentesi barruan galdu den hotsa ipiniz, ez marra batez ordezkatur. Beraz: *etxea* (< etxera), *ein* (< egin), *zeok* (< zegok)...

#### c) Soinu-multzoa galtzea (kontsonante + bokal; bokal + kontsonante):

Orain arteko joera ondokoa izan da gaiaz arduratu diren ikertzaile desberdinen lumetan:

- Hitz-hasieran: *in* (< egin), *itta* (< egitea)...
- Hitz-barruan: *eman* (< eraman), *za*, *goan* (< gogoan), *ben* (< beren), *mañelak* (< mariñelak)...
- Hitz-amaieran: *zoma*...

Proposamena ondokoa da: soinu-multzo bat galtzen denean ere ez da adieraziko parentesi barruan eta lekukoak ebaki bezala transkribatuko da.

### 2.3.2. Fonetika sintaktikoan gertatzen diren soinu-multzoak

Berba bi elkarrekin batera ahoskatzeko direnean lehenaren amaierako soinuak eta bigarrenaren hasierakoak aldatuak jasaten dituzte sarri. Aldaketok era desberdinetakoak izan ahal dira. Hemen soinu-aldaketa eta galtzeak gertatzen direnean nola jokatu behar den aztertuko dugu. Hona maietzen agertzen direnak:

#### a) Soinu edo hots bat galtzea:

Gerta liteke soinu bat galtzea, bai lehenengoaren amaierakoa edo bigarrenaren hasierakoa. Izan liteke bokal bat edo kontsonante bat:

##### a.1.) Bokal bat galtzea:

Orain arteko joera ondokoa izan da:

- Lehenengoaren amaierakoa galtzen denean: *d'ori, pixkot-pixkat, t'ezin...*

Eta hauek ere antzera: *d'asi, d'aber...*

- Bigarrenaren hasierakoa: *egin zak, kobratu re, neoni re, bat e (< bat ere), idi at, ze ingo u, ikusi ot...*

Proposamena: bokal bi elkartzen direnerako apostrofea erabiltzea proposatzen da, orain arteko joerari jarraituz. Bokal desberdin bi direnerako irtenbide egoki-egokia da; eta berdinean esan behar da bokal berdina direnerako ere: *et'ordin, d'esotzien; t'andikan, t'ama...*

##### a.2.) Kontsonante bat galtzea:

- Lehenengo berbaren amaierako kontsonantea galtzea. Transkribatzeko

modu desberdinak agertzen dira argitalpenetan: *izate zan (< izaten zan), uzte(n) zela, jute giñan, aste san, aitze giñan; uz dezagun, bildos bat.*

- Bigarrenaren hasierakoa: *difeénta úte, urti at, saldu ittue, iria et, errainen itzuet, maestra at, uste'et*

Bi kasuetarako balio duen proposamena zera da: lekukoak ahoskatu dituen moduan idaztea, entzun den hura eta hitzak bananduta: *uzte zan, aste zan; uz dezagun; uste et; maestra at...*

#### b) Soinu edo hots bat baino gehiago galtzea, baina ez silaba:

b.1.) Lehenengoaren amaieran soinu bat eta bigarrenaren hasieran beste bat galtzea (aditzetan maizen):

Orain arteko joera ondokoa izan da: *esate otzu, izate ok, aure ok, eote a, izete a, aste ie, izate ana, izate et, bate atek, ikustet...*

Proposamena: irakurketa zailtzen ez duen bitartean dagoen dagoenean, lekukoak ahoskatu bezala, idatziko da eta berbak bereizita: *ikust'et, esate otzu...*

b.2.) Galdu diren soinu edo hotsak berdina direnean, lehena lehenengo berbaren amaieran eta bigarrena bigarrenaren hasieran:

Orain arteko ohitura berbak loturik idaztea izan da, nagusiki:

- Bokalak: *serturien (< sertu urien < zertu eurien), kantaukotziet, guraurien, gerrandiemoten, ori txarkori, kuyaurduko, bototzela, guatutzien...*

- Kontsonanteak: *iñokendu...*

Proposamena: hots bi horien bakar-tze edo sinplifikazioa idatziz ere gauzatzea; berbak bereiz idatziko dira eta lehenengoaren amaieran apostrofe bat jarriko da letra bat (hots bat) falta dela adierazteko: *kantauk'otziet, gur'aurien, gerr'andi'emoten, ori txark'ori, iño'ken-du, kuya'urduko, bot'otzela, guat'ut-zien...*

Baina beste batzuetan gauza nahasgarriak ere izan daitezke eta horietan zehatz jokatzeko gomendatzen da. Adb.:

*esanotzun:*

*esa notzun* (<esaN Notzun)  
*esan otzun* (<esan eutzun)

c) Silaba bat galtzen denean:

Sarri gertatzen da hotsak ez eze silabak ere galtzea. Kasu desberdinak agertzen dira orain arteko testuetan:

c.1.) Lehenengoaren amaieran silaba bat galtzen denean:

Honelakoak agertzen dira orain arteko lanetan: *jaking'eu, geitut'otzie, atarat'auen, uset'auren, urtet'aure, beok...; geitutotzie, ataratauen, urtetaure, beok...; geitut(e) otzie, uset(a) auren...*

Aukera desberdinak daude era honetako burutzapenak transkribatzeko:

- Apostrofea erabiliz: *jaking'eu, geitut'otzie, atarat'auen, uset'auren...*
- Marra bat erabiliz: *jaking-eu, geitut-otzie, atarat-auen, uset-auren...*
- Ezer gabe bereizita: *jaking eu, geitut otzie, atarat auen, uset auren...*
- Falta den bokala parentesi barruan sartuta: *jaking(o) eu, geitut(e) otzie, atarat(e) auen, uset(a) auren...*
- Lotuta idaztea: *geitutotzie, ataratauen, usetauren, urtetaure, beok...*

Kasu hauetarako proposamen hau luzatzen da: berbak apostrofo ( ' ) batekin bereiztuta idaztea: *jaking'eu, geitut'otzie, atarat'auen, ust'auren...*

c.2.) bigarrenaren hasieran silaba bat galtzen denean: *uste't* eta antzekoak.

Proposamena: aurreko kasuan legez apostrofo bat erabiliz transkribatzea.

d) Soinu berriak sortzea.

Gerta liteke, euskal fonetikaren arauen eraginez, soinu edo hots berriak sortzea ere, lehenengo hitzaren amaiera eta bigarrenaren hasierako hotsen artean. Honelako hots berriak normalean bigarren berbaren hasieran sortzen dira:

d.1.) Igurzkaria > afrikatu bihurtzea: *errin tzeon* (< errin zeon), *etxen tzen, zeit tzuzun, izan tze, nik tzer, xuiten tzian, urrun tzela, galdein tzaikon, errain tziñuten, paatzen tzuen, in tzuten...*

d.2.) Herskarietan ahoskabe + ahostun > ahoskabe. Orain arteko lanetan joera bi agertzen dira: a) berba biak loturik idaztea: *ipadakik, onatireala, kanpaia-txo, beratxakik, onepadaki, goitipera, klasetaus...* b) bereiz idaztea: *artise patzuk, ser ingopa, ikopere bai, ainbe tenpora,*

Proposamen moduan bi hitzak bereiz idaztea gomendatzen da, leku-koak oguzitakoa zehatz transkribatuz, orain arteko ildoari jarraikiz eta banaketa silabikoaz: *etxen tzen, zeit tzuzun, izan tze, iko pere, millekota pere, klase taus, aie pe, orre pe, kanpaia txo...*

### 2.3.3. Ba, ez eta bait- partikulak

Orain arteko joera ez da bateratua, forma desberdinak ikusten baitira testu desberdinetan, loturik eta bereizita: *ez kiñan, es taiten, ez kendun...; estot, eskara, esta, espadator, etzuen...*

Partikula hauek beti loturik idaztea proposatzen da. Berdin hauetako partikula bi elkarren ondoan agertzen direnean ere: *eztator, ezkaitu, badira, batzu (# batzuk), etzen, eztiotela, etzuen, eznuen, enuen, etzakien, esotzien (< ez otzien; # esan otzien); badator, baakiu; ezpaitzegon, baitzau-den...*

## 3. Ondorioak

Irizpide hauek hizkuntzalaritzaren alor honetan dihardugunon artean eztabaida zabaltzeko asmoz plazaratzen dira. Ez dira, beraz, besterik gabe eta ezelango ezbairik gabe aplikatu behar. Ez da hori lerro hauen helburua.

Euskal dialektologian geroago eta korpus handiagoak ditugun une honetan, ezin onartuzkoa litzateke korpus horiek nolanaahi eta inolako homogeneotasunik gabe haztea. Alor honetan gabiltzanon zeregina dugu. Has gaitetzen, bada, elkarlanean.